


Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K



JAZZ KONTZERTUA ▶ Iñaki Salvador

Otsailak 3 ostirala 22:30etan
GEZALA AUDITORIUMEAN

Sarrera
5,00€



Piano-jole, moldatzaile eta konposatzailea. Iñaki Salvador Donostian jaio zen 1962. urtean. Piano ikasketa klasikoak, Akordeoia, Armonia, Kontrapuntua eta Fuga eskolak jaso zituen. Musika modernoaren eta jazzaren alorrean, batez ere autodidakta da. Bere ibilbideari dagokionez, dantza eta Antzerki ikuskizunetarako konposizio eta moldaketak egiten ditu. Adibidez, Tanttakarentzako *El pianista en el oceano* ikuskizunarentzako egin zuen konposaketagatik 2001. urteko Max sarietara izendatuta izan zen.

Bestalde, Iñaki Salvador bere Jazz taldeen buru da: Iñaki Salvador Trio, Naima Quartet, Andrzej Olejniczak-Iñaki Salvador Quartet, Iñaki Salvador & Zilbor Hestea. Guzti horiekin diskoak argitaratu ditu. Horretaz gain, Bartzelona, Gasteiz, Madril, Sevilla, Donostia, Getxo, Berlin, Brujas (Belgika) Bucarest (Errumania), edota Perpignan bezalako hirietako Jazz Jaialdietan ibilia da.


Jarduera pedagogiko zabalekoa, hainbat musika eskola eta kontserbatorioetan eskola eta mintegiak ematen aritu da, Bartzelonako Aula de Música Moderna y Jazz-en eta Taller de Musics-en esate baterako. Egun piano-jazz irakaslea da Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Gunean. Bestalde, Zarauzko Nazioarteko Jazz mintegiaren zuzendari pedagogikoa da.

Aipatutako guztia gutxi balitz, zenbait Jazz Jaialditan sariak jasoa dela esan behar da, eta aldi berean oso ezagunak dira bere kolaborazio bikainak Mikel Laboa bezalako abeslari eta musikariek.

PROIEKZIOA eta SOLASALDIA ▶ Urtzi Urkizu "NO EXCUSE"

Otsailak 10 ostirala 22:00etan
GEZALA AUDITORIUMEAN

Sarrera
0,00€



Urtzi Urkizu kazetari lezoarrak 'No Excuse' izeneko euskarazko dokumentala estreinatu zuen joan den urtarrilaren 10ean Koldo Mitxelena. Dokumentalak, Errenteriako *Mikelazulo Elkarteak* 10 urtean egindako ibilbidea aztertzen du. Bertako kideek hainbat gaien inguruko hausnarketak egiten dituzte: sormena eta errealitatea, gizarte arazoak, kulturen arteko zubiak, inmigrazioa, kalea sormenerako agertoki gisa, erakundeek jokaera kulturaren aurrean, euskara eta elkartzaren garrantzia. Gai bat eta bestearen arteko lotura Josanton Artek egiten du argitaratu gabeko olerki erretratuz. Beste hainbat ezusteko ere aurkituko ditu dokumentala ikustera hurbiltzen denak.

Bestalde, *Mikelazulo* Errenteriako elkarteak bada ere, lezoarrek bertan parte hartu izan dute eta hori dokumentalean ikus daiteke: Asier Sarasola olerkaria hiru eszenatan azaltzen da eta Lorea Intxaurrendiaren kanta bat ere ageri da.

BERTSO JAIALDIA ▶ BERTSOLARIAK

Otsailak 11 larunbata 22:30etan
GEZALA AUDITORIUMEAN

Sarrera
7,00€

GAI JARTZAILEA: Unai Elizasu


BERTSOLARIAK: Iñaki Gurrutxaga / Maialen Lujanbio / Jon Maia / Aitor Mendiluze.

Pasa dira bi urte zenbait lezoar bere bertsozaleasuna ase asmoz biltzen hasi zenetik. Urte horien emailza da Lezoko **Mañontzi Bertso Eskola**.

Aurten, asmo berriz gainezka, herri mailan duen presentzia areagotu nahian ekintza sorta antolatuta du; horien artean otsailaren 11ko bertso saioa, bertso eskolaren "bataio saioa" taldekideen esanetan.


Lezon aurrekaririk gabeko ekitaldia, eta inguruko herrietan arrakasta izan ohi duen emanaldi mota. Lau bertsolari handi, puntakoak, eta finaleko lan taldean aritutako gai jartzailea. Tenta-garria dudarik gabe.

Hara, Lezoko Gezala;
areto goxo apala,
eseri-aulki eroso eta
soinu mundiala,
"BEC" handiaren ezpala
hau da bigarren atala
bertsozaleak saioa festa
bihurtu dezala



ERAKUSKETAK ▶ Antonio Valencia "ANIMALITOS"

Otsailak 6tik 28ra
9:00-14:00 (Astelehenetik ostiralera)
KULTUR ARETOA (Donibane kalea, 2)



Argazkiaren munduak aukera asko eskaintzen ditu: erretratuak, paisaiak, kirolak, arkitekturaren ingurukoak... Edonola esparru berezia lantzen du Antonio Valenciak: makrofotografiarena, hain zuzen ere. Beste hitz batzutan esanda, mundu txikiak guk ikusteko tamainara ekartzen ditu. Valenciarene kasuan animali txikiak osatzen duten munduaren errealitatea hurbiltzen saiatzen da. Valenciak bi helburu jarraitzen ditu argazkiak ateratzekoan: mundu txikien ezagutzan areagotzearena eta edertasuna bilatzea.

Igelak, armiarmak, tximeletak, sugandilak, burrunziak,... dira Antonio Valenciarene istorioen protagonistak eta euren ingurune naturalak osatzen dute eszenategia. Kolorez eta naturaz gainezka dagoen erakusketa honetan askorentzako berriak suertatuko diren *errealitateak* bistaraziko dizkigu argazkilaria liluragarri honek.

Bestalde, aipatzekoa da, egilea gaur egun hain modan dauden kamara digitalen eskaintzen duten aukeretan ez oinarritu izana. Betiko kamara reflex-a izan da Valenciarene lantresna eta hari atera dio etekina. Bai bakarka, bai taldean, erakusketa ugari antolatuta ditu Valenciak.


2006

OTSAILA FEBRERO

AUDITORIUMA

Sarrera
7,00€

r Mendiluze.
si zenetik. Urte
n ekintza sorta
aio saioa" talde-
duen emanaldi
artzailea. Tenta-



ALITOS"

1)
2)

ntzen ditu: erre-
n ingurukoak...
onio Valenciak:
ste hitz batzutan
ainara ekartzen
osatzen duten
tzen da. Valen-
ateratzerakoan:
a eta edertasu-

dilak, burrun-
ak osatzen dute
ko berriak suer-


skaintzen duten
a eta hari atera

ABBAS KIAROSTAMI

Irango zinemaz hitz egiteak, Irango erregimenaz hitz egitea esan nahi du. Iraultza islamiarrean oinarrituta daude erakunde politikoak. Guzti horren iraupena bermatzeko estatua dago eta beste lan askoren artean, bat kultura eta arte munduan egiten dena kontrolatzea da. Horrek, artistek, beren sormenak eta gaitasunak jartzen dizkieten mugaz gain, erregimenaren nahiak jarritakoak ere kontuan hartu behar dituztela esan nahi du. Bi elementu horiez gain, edozein pelikulari merkatuak ezartzen dizkion baldintza gogorak kontuan hartzen baditugu, Kiarostamiren abileziarekin egingo dugu topo. Beste hitz batzutan esanda sorkuntza, erregimenaren zentsura eta merkatuaren beharrak ongi josten jakin duen artistarekin egingo dugu topo.


Kiarostamiren beste ezaugarri bat haurrak dira. Haurrak erabiltzen ditu bere istorioetan eta nola egin badaki. Ez da soziologikoki egiten duen hurbilpen bat. Bizitzaren aro horri estima handia dio eta istorioak sortzeko iturri amaigabetzat jotzen du. Kiarostamik haurrak ikusleei transmititu nahi dizkien baloreak helarazteko tresna moduan erabiltzen ditu, eta ez mizkeria erraza sortzeko oinarri moduan, guregandik hain urrun ez dagoen beste zinema batzutan gertatu ohi den moduan.

Kiarostamiren ustetan zinema errala izatearen eta ideala izatearen artean dagoen distantzia da, ea guretzat ere horrela suertatzen den eta ziklo honetan frogatzeko aukera dugun.




¿DÓNDE ESTÁ LA CASA DE MI AMIGO?
Irango iparraldean kokatzen den Koker herriko eskolan Mohamedek arazoak ditu: ez ditu etxeko lanak egin eta irakasleak berriro gertatuz gero bidali egingo duela mehatxatzen du. Egun horretan bertan Ahmed bere lagunak konturatu gabe Mohameden koaderno hartzen du. Gauean itzultzerako doala galduta egingo da. Bere laguna salbatzeagatik gauean kilometroak egiteko prest dagoen lagun honek elkartasunaren garrantziaz ohartaraziko gaitu.

1987, Iran 83 min. Kiarostami, Abbas.
Babek Ahmed Poor, Ahmed Ahmed Poor, Kheda Barech Defai, Iran Outari.




LA VIDA CONTINÚA...
Guilango 1990eko lurrikara eta gero, zuzendaria eta bere semea ¿Dónde está la casa de mi amigo? pelikulan parte hartu zuten antzezleetaz zer izan zen aztertzerako doaz. Herrira iritsita bi familiakideak lurrikaren ondorioz guztia galdu duten arren, bertakoak itxaropenez beteta jarraitzen dutela ikusten dute harriduraz. 1992an Cannesen sari bat eman zioten.

1992, Iran 95 min. Kiarostami, Abbas.
Farhad Kheradmand, Buba Bayour, Hocine Rifahi, Mahrem Feydi.



A TRAVÉS DE LOS OLIVOS
Ziklo honetan proiektatuko diren pelikulen artean ezagunena hau izango da ziurrenik. Lurrikarak erabat txikitu duen Koker herrira zine ekipa bat iritsiko da pelikula bat errodatzeko hasteko. Bertako gazte bat, Hossein, hartuko dute ekipoko laguntzaile, baina momentu horretan maite duen neskaarekin ezkontzarako ezezik jasoko du neskaaren familiaren aldetik. Bera, pelikula alde batera utziz, neskaaren bila abiatuko da. 1994ean Valladoliden lehen saria irabazi zuen.

1994, Iran 103 min. Kiarostami, Abbas.
M-Ali Keshavarz, F.Kheramand, Zarifeh Shiva, Hossein Rezai.




EL GLOBO BLANCO
Pelikula honetan zuzendaria Panahi bada ere, Kiarostamik egin zituen gidoi lanak. Gerora Kiarostamiren kolaboratzaile izango zen Panahiren ondo bideratutako opera prima da honako hau. Urteberri eguna iristear dago eta festa preparatzeko egin beharreko erosketak egiten ari dira ama-alaba. Mandatu bat betetzera bidaltzen du alaba eta honek debekuei kasurik egin gabe helduen munduan sartzea suposatuko dituen urratsak emango ditu.

1995, Iran 85 min. Panahi, Jafar - Kiarostami, Abbas.
Aida Mohammadkhani, Mohsen Kafil, F.Sadr Orfani, Ann Borkowska.

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Larunbata 16:30etan **1,00 €**

OSTEGUNA • jueves




EL PROCESO PARADINE

Maisuaren lan ezezagunenetakoa. Bai, mundu guztiak ikusi ditu ia bere lan guztiak, baina ez da pelikula honen kasua. Antzezle talde azpimarragarrian oinarrituz oraingoan epaiketen jeneroan sartzen da Hitchcock. Alargun geratu den emakumea defendatuko du Peck-Keane abokatuak, baina denborarekin emakume horren iragan beltza azaleratuz joango da.

Oscarretarako izendapen bat jaso bazuen ere, ez zuen irabazi.

1947, EEBB 125 min. Hitchcock, Alfred.
Gregory Peck, Ann Todd, Charles Laughton, Charles Coburn.




UN, DOS, TRES

Fernando Truebak *Belle Epoque* pelikularekin Oscarra irabazi zuenean Jainkoetan sinisten ez duenez Wilderri eskaini zion saria. Eta Wilder ez da Jainkoa izango, baina batek berak egindako pelikulak ikusten ditue-nean, gutxienean baieztapen hori zalantzan jartzen du!

Pelikula hitz batekin definitzeko eskatuko baligute abiadura izango litza-teke aukeratutakoa. Erritmo bizia eta umoretsua, betirako geratuko zai-zun pelikula.

1961, EEBB 115 min. Wilder, Billy.
Cagney, James, Tiffin, Pamela, Buchholz, Horst, Francis, Arlene.



HISTORIAS DE FILADELFIA

Tracy Lord (K.Hepburn) banatua dago eta ezkontzera doa G.Kittridge-rekin. Ezkondu baino egun pare bat lehenago senar ohia C.K Dexter Haven (C.Grant) azalduko da. Baita ezkontzaren berri eman behar duten bi kazetari ere. Hollywoodek bere historian eman dituen hiru ant-zezle hoberenatarikoak parte hartzen dute. Zerbait gehiago behar duzu komedia klasiko batekin gozatzeko? Bi jaso Oscar jaso zituen 1941ean.

1940, EEBB 112 min. Cukor, Georges.
Hepburn Katharine, Grant, Cary, Stewart, James.



CON FALDAS Y A LO LOCO

Imajina ezazu egoera: emakumez osatutako musika banda. Mafia tal-de bat. Mafia talde horretatik ihesean doazen bi gizon emakumez jantzita eta musika bandan txertatuko direnak. Han abeslari sexy bat ezagutuko dute: Sugar Kane (Marilyn Monroe). Hollywooden oso ongi egiten jakin izan duten beste katramila barregarria. Jack Lemmon eta Tony Curtis, momenturik hoberenean zegoen Marilyn Monroeekin batera. Soilik bi hitz: ahaztezina!

1959, EEBB 120 min. Wilder, Billy.
Lemmon, Jack, Monroe, Marilyn, Curtis, Tony.

LARUNBATA • sábado



PANTERA BELTZA

Bideo hau bi zatitan banatua dago. Super Bat klubeko festarako egindako emanaldia agertzen da lehen zatian, abentura eta abestiekin. Bigarre-ne-an, gure pailazoak Pantera Beltza koadro lapur beldurgarriari egingo dio-te aurre.

Altza Pelipe! eta *trulalai, trulalai* hurbildu zaitez zinemara Txirri, Mirri eta Txiribitoen pantera beltzarekin izango dituzten borrokak ikustera.

2002, EH 60 min. Txirri, Mirri eta Txiribiton.
Txirri, Mirri eta Txiribiton.



ILARGIAREN SEKRETUA

Basamortuan bizi da Sidi haur sahararrak arba gaixo du. Gaueko lore baten bila joan beharko du eta bilaketa horretan Euskal Herrirai-no iritsiko da. Madame Banu eta bere bi laguntzaileak lore guztiak harrapatu dituztenez Sidik ez du berea lortzerik izan. Hiru pertsonai maltzur horiek ongi ezagutzen dute loreak duen boterea eta ilargiak gordetzen duen sekretua. Pirltix eta Porrotxekin egingo du topo Banuk eta laguntza aurkituko du beraiangan.


2004, EH 77 min. Pirltix eta Porrotx.
Pirltix eta Porrotx.



HIRUKIAK: BREMENGU MUSIKARIAK / PRINTZESA & ILARRA

Hiru ahizpek oraingoan ere ipuin klasikoetan oinarritutako istorioe-kin datozkigu berriro ere. Oraingoan Bremengo musikariekin elkar-tuko dira. Gure lagun diren hirukiak musikaz bustiko dute lehen kontakizuna. Bigarreanean berri, izenburua hain ezaguna ez bada ere, betiko ipuinen ildoari eusten dio: printze eta ilarraren arteko harreman gatazkatsuak amaiera zorionsua izango du.


2003, Catalunya 65 min. Hainbat.
Marrazki bizidunak.



HARTZ TXIKI

Marrazki bizidun hauetako protagonista Hartz Txiki da, hartz amesla-ri bat. Pelikula honetan Hartz Txiki eta bere lagunen abenturak ikus-teko aukera izango duzue. Jakinmin eta irudimen handiz leku berriak ezagutzera joango dira, eta gauza liluragarriak gertatuko zaizkie. Ama ez da inoiz urrun ibiliko. Ez galdu Hartz Txikiren mundu liluraga-rra eta dibertigarria!

1996, Kanada 70 min. Raymond Jafelice.
Marrazki bizidunak.




MELINDA, MELINDA

Woody Allen zuzendariaren ibilbideko 39. pelikula. Amodioa, bikoteen arteko harremanak, sexua, heriotza edo sormena bezalako gaiak lantzen jarraitzen du iparamerikarrak. New Yorkeko burgesia eta intelektualak hartzen ditu oraingoan bere baloreei buruz hitz egiteko. Istorio bera bi bertsiotan (bata komedia tonuan eta beste drama izaerarekin) kontatzen du, gai berari ikuspuntu ezberdinak eskainiz. Betiko Woody Allen eta oraingoan ere ez digu kale egingo!

2004, EEBB 100 min. Allen, Woody.
Shawn, Wallace, Pepe, Neil, Pine, Larry.

EMANALDIRIK EZ DAGO


BERTSO SAIOA



ENTRE COPAS

Californiako ardogle eta upeltegietatik barrena astebete igarotzera doaz bi lagun, bietako baten ezkontza aurretik. Baten helburua ardoen munduan murgiltzea da. Bestearena, ezkondu aurretik azken abentura sexuala izatea. Komedia interesgarria eta saritua. Ondo jan eta edanda joan, bestela ezpainetatik behera baba arrastoa duzula aterako zara zinematik.

2004, EEBB, Hungaria 123 min. Payne, Alexander.
Madsen, Virginia, Giamatti, Paul, Oh, Sandra, Haden Church, Thomas.



HOTEL RWANDA

Hutu eta tutsien arteko gerra garaian kokatua dago Hotel Rwanda. Paul Rusesabagina (Don Cheadle) Rwandan dagoen hotel bateko gerente hutua da. Bere emaztea tutsia da. Bikoteak tutsi asko heriotzatik libratzen saiatuko da. Terry George Jim Sheridan irlandarraren gidoilaria izan da *In the Name Of The Father* o *Some Mother's Son* bezalako pelikuletan. Hori, berme bat da gai politiko-sozialak lantzen dituen kasu honetako pelikulan bezala.

2004, EB, Italia, Hego Afrika 121 min. George, Terry.
Xolani Mali, Cheadle, Don, Dube, Desmond, Kgoroge, Tony.

OTSAILA - febrero

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 2	22:00	EL PROCESO PARADINE
LARUNBATA 4	16:30	PANTERA BELTZA
LARUNBATA 4	22:00	MELINDA, MELINDA
OSTEGUNA 9	22:00	UN, DOS, TRES
LARUNBATA 11	16:30	ILARGIAREN SEKRETUA
LARUNBATA 11	EMANALDIRIK EZ DAGO	BERTSO SAIOA
OSTEGUNA 16	22:00	HISTORIAS DE FILADELFIA
LARUNBATA 18	16:30	HIRUKIAK: BREMENG / PRINTZESA & ILARRA
LARUNBATA 18	22:00	ENTRE COPAS
OSTEGUNA 23	22:00	CON FALDAS Y A LO LOCO
LARUNBATA 25	16:30	HARTZ TXIKI
LARUNBATA 25	22:00	HOTEL RWANDA

ABBAS KIAROSTAMI zikloa

eguna/día	ordua/hora	pelikula
ASTEARTEA 7	22:00	¿DÓNDE ESTÁ LA CASA DE MI AMIGO?
ASTEARTEA 14	22:00	Y LA VIDA CONTINÚA...
ASTEARTEA 21	22:00	A TRAVÉS DE LOS OLIVOS
ASTEARTEA 28	22:00	EL GLOBO BLANCO

AUDITORIUMA

Gezala